

Gai-zerrendako puntua: 15

Kapital sozialari egiten zaizkion borondatezko ekarpenen urteko interes-tasa

AURKIBIDEA

Mundu-mailako testuinguru ekonomikoa	2
Kooperatibako testuinguru ekonomikoa	2
Interes-tasaren erreferentziak	4
Interes-tasaren proposamena 2024/07/01 - 2025/06/30	5

Mundu-mailako testuinguru ekonomikoa

Mundu-mailako ekonomia-aurreikuspenen arabera, ekonomiak desazeleratu egingo dira ([Munduko Bankua](#)).

Ukrainako gerra eta Gazako genozidioa esparru geopolitikoan ziurgabetasun ugariaren iturri dira oraindik.

Desazelerazio ekonomiko hori jada inflazioaren jaisten laguntzen ari da Espainian: bi urtez inflazio altua izan ondoren (% 6,5 2021ean eta % 5,7 2022an), 2023a % 3,1ekoarekin itxi da eta 2024 urterako % 2,9ko KPIa aurreikusten da.

Banku-sektoreko interes-tasak, urte luzez balio negatiboa izan ondoren, 2023an zehar igo egin ziren eta orain % 3,66ko Euribor 12a dute. Nolabaiteko murrizketa aurreikusten da, 2024 amaiera aldera % 3,25eko emaitza izatea eta 2025ean % 2,75ekoa ([Bankinter](#)).

Kooperatibako testuinguru ekonomikoa

Merkaturatze-jarduerak oraindik emaitza sendoak mantentzen ditu, 2023 honetan 1,4 **milioi** baino gehiagoko **EBITDA**ekin, eta horri gehitzen zaizkion kooperatibak jada dituen erreserbekin.

Finantza-erakundeekin kontratatutako zenbateko osoa 12,8 milioi eurokoa da.

- kreditu-polizak (7 M€)
- maileguak (0,8 M€)
- ordaintzen konfirmazio-lerroak (5 M€).

0,8 M€ bakarrik erabiltzen ari gara mailegutik

Bazkideek kapital sozialari egiten dizkioten borondatezko ekarpenak finantzaketarako beste erreminta garrantzitsu bat dira. Gaur egun ia 24,5 milioi eurora iristen dira.

Likidezia handiko egoera hori mantentzea egokitzat jotzen dugu bi arrazoiengatik:

- Nazioarteko ezegonkortasun politikoaren aurrean, likidotasun-maila horiek mantentzeak energiaren bat-bateko igoeren (eta ondorioz merkatuan bermeen igoeren) aurrean prest egotea ahalbidetzen digu:


BERMEEN IGOERA X IGOERAGATIK: ADIBIDE-KOADROA

	sum						
perc_incr	0,25	0,5	0,75	1	1,25	1,5	1,75
data							
2023-03-17	17.252.234	15.056.360	12.860.148	10.664.153	8.468.106	6.271.940	4.075.456

- Gure inbertsio-planaren arabera, hurrengo hiru urteetan gure sorkuntzako proiektu berrietan 40 milioi euro baino gehiago inbertitzea aurreikusten da. Altxortegi on batekin inbertsio hori gure gain hartu ahal izango dugu eta sor daitezkeen aukerak aprobetxatu.

Bestalde, 8.800 pertsona baino gehiagok parte hartzen duten finantzaketa-modalitate batean logikoa den bezala, borondatezko ekarpenek sarrerak eta irteerak erregistratzen dituzte urtean zehar:

Hilabetea	Ekarpenak	Itzulketak	Saldo garbia
2023/03	25.700	-298.300	-272.600
2023/04	19.400	-362.800	-343.400
2023/05	93.700	-374.800	-281.100
2023/06	163.500	-144.800	18.700
2023/07	165.800	-256.200	-90.400
2023/08	33.000	-34.700	-1.700
2023/09	70.800	-130.400	-59.600
2023/10	55.900	-221.200	-165.300
2023/11	35.100	-192.300	-157.200
2023/12	32.300	-174.700	-142.400
2024/01	12.200	-79.900	-67.700
2024/02	25.100	-264.400	-239.300
Guztira	732.500	-2.534.500	-1.802.000



Interes-tasaren erreferentziak

- Altxor publikoaren letra urte batera (Espainia): % 3,50 (2024/03/05)
- Altxor publikoaren letra urte batera (Alemania): % 3,42 (2024/04/03)
- Diruaren legezko interesa: % 3,25
- Borondatezko kapital sozialaren interes-tasa ekosistema kooperatiboan:

Erakundea	Interes-tasa (%)
SOM ENERGIA	2,00
Som Mobilitat	2,50
Coop57	0,50
Goiener	0,00
Abacus	4,00
Consum	3,00

- Proiektuen banku-finantzaketa: Euribor 12 hilabete + % 2 = % 5,66
- Merkatuko abalen kostua: urteko % 0,85 pignoraziorik gabe
- Som Energiaren polizen finantzaketa: % 4,75 (erabili gabekoa % 0,30)

Interes-tasaren proposamena 2024/07/01 - 2025/06/30

1. aukera

Interes-tasa % 2,5arte igotzea

2. aukera

Interes-tasa % 2arte igotzea

3. aukera

Interes-tasa % 1,5era jaistea

Planteatutako aukeren aldeko eta kontrako puntuak:

Interes-tasa	% 1,5	% 2	% 2,5
Alde	Finantza-gastua gutxi gora behera 115.000 € murriztea Merkatuko balioaren azpitik ordaintzea	Urtean 2 M€ itzultzen jarraitzea 2024ko aurrekontuan aurreikusitako gastua mantentzea 2024-25en aurreikusitako inbertsioak kanpoko finantzaketarik gabe egin ahal izatea	Itzulketen murrizketa 2024-25en aurreikusitako inbertsioak kanpoko finantzaketarik gabe egin ahal izatea
Kontra	Itzulketa-eskaeren igoera posiblea Inbertsioetarako altxortegi propioa izateko zailtasuna		Finantza-gastua gutxi gora behera 115.000 € igotzea Merkatuko balioaren gainetik ordaintzea
Neutroa		Beste erakunde batzuetako bazkideei egiten zaizkien proposamenekin bat etortzea	